Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko ekainaren 16a, osteguna — 114 — Jueves, a 16 de junio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

### Gizarte Zerbitzuak

*Udal ikastetxeentzako prebentzio jardueretarako dirulaguntzen Ordenantza behin-betiko onespena.*

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 31ko batzarraldian, hasierako izaeraz Udal ikastetxeentzako prebentzio jardueretarako dirulaguntzak onartzeari buruzko erabakia hartu zuen.

Aipatu ordenantza argipideketa publikora eta interesatuen entzunera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik ez eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin-betikoz onartutzat geratzen da plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez, Ordenantzaren behin-betiko testua, iragarki honi jarraian datorkiona izanik.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Andoain, 2022ko ekainaren 7a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (3908)

HITZAURREA

2017-2021 aldirako Euskadiko Mendetasunen VII. Planaren barruan, Andoaingo Udalak laguntza ekonomikoen erabidea jarri zuen abian ikastetxeentzat, mendetasunei aurre-hartzeko, jokabide osasungarriak sustatzeko eta eskola-komunitatea sentiberatu eta kontzientziatzeko jarduerak diruz laguntzeko.

Mendekotasunen eta, berariaz, droga-mendekotasunen gaineko Arreta Osoari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 3. artikuluak honako printzipio gidari hauek ezartzen ditu, besteak beste: a) Erantzukizun publikoaren, erakundeen koordinazioaren eta gizarte erantzukidetasunaren printzipioak aurre-hartzea, laguntza eta inklusioa (barnepetza) lantzeko beharrezkoak diren alorkako esku-hartzeei eragin behar die, eta d) bizi-ohitura osasungarriak sustatuko dituen eta gizarteak mendekotasunekiko dituen jarrerak eta portaerak aldatuko dituen osasun-kulturaren sustapen aktiboa.

Era berean, Lege horren 4 f) artikuluak ezartzen du mendekotasunei eta droga-mendekotasunei aurre-hartzeko eta arreta osoko ereduaren oinarrizko oinarri gisa osasunerako hezkuntza ezarri dela, ohitura osasungarriak aurretik sortu eta sustatzeko, batez ere adinekoen eta gazteen artean.

Lege horrek berak, 5 b) artikuluan, helburu orokor gisa ezartzen du erkidegoko, hezkuntzako, familiako eta laneko aurre-hartze egitarau eraginkorrak ezartzea eta garatzea.

Esan, gainera, Lege horren 17. artikuluak hezkuntza-eremuko aurre-hartzean garatu beharreko neurriak jasotzen dituela.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Servicios Sociales

*Aprobación definitiva de la Ordenanza de Ayudas económicas para actividades de prevención dirigidas a centros escolares municipales.*

El Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 31 de marzo de 2022 aprobó con carácter inicial la Ayudas económicas para actividades de prevención dirigidas a centros escolares municipales.

Como quiera qué durante el trámite de información pública, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, de conformidad con lo previsto en el referido acuerdo plenario, la ordenanza queda aprobada definitivamente, lo cual se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, siendo el texto definitivo de la ordenanza el que se inserta a continuación.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Andoain, a 7 de junio de 2022.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (3908)

PREÁMBULO

Enmarcado en el VII Plan de Adicciones Euskadi 2017-2021, el Ayuntamiento de Andoain pusó en marcha un sistema de ayudas económicas dirigidas a los centros escolares para subvencionar las actividades de prevención de las adicciones, de promoción de conductas saludables y de sensibilización y concienciación de la comunidad escolar.

El artículo 3 de la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, establece como principios rectores, entre otros, los siguientes: a) El principio de responsabilidad pública, coordinación institucional y corresponsabilidad social ha de impregnar las intervenciones sectoriales necesarias para abordar la prevención, asistencia e inclusión en esta materia y d) Promoción activa de una cultura de salud que fomente hábitos de vida saludables y que incluya la modificación de actitudes y comportamientos de la sociedad hacia las adicciones.

Asímismo, el artículo 4 f) de esta Ley, establece como fundamento básico del modelo de prevención y atención integral a las adicciones y drogodependencias, la educación para la salud, con el fin de prevenir y promover hábitos saludables, especialmente en las personas mayores y en la juventd.

Esta misma Ley, en su artículo 5 b), establece como objetivo general, potenciar la implantación y desarrollo de programas efectivos de prevención comunitaria, educativa, familiar y laboral.

Añadir que el artículo 17 de esta Ley recoge las medidas a desarrollar en la prevención en el ámbito educativo.

EK\CV GAO-I-2022-03908

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluak ezartzen duenez, udalerrien berezko eskumenak dira honako hauek: 10) Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, eta 13) Gizarte Zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea. Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25.2 e) artikuluan jasotzen du udalen eskumena dela gizarte-premiako egoerak ebaluatzea eta informatzea eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei berehalako arreta ematea.

Ordenantza, bestalde, bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako araupetze onaren hatsarreekin.

Ildo horretan, premia- eta eraginkortasun-printzipioei jarraikiz, arau hau sortzearen oinarria da mendekotasunei aurrea hartzea, jokabide osasungarriak sustatzea eta eskola-komunitatea sentibertazea eta kontzientziatzea, osasun publikoa sustatzeko eta babesteko.

Egokitasun-hatsarrea ere errespetatzen da, Ordenantzan aipatutako helburua lortzeko ezinbesteko araupetzea jasotzen baitu. Era berean, araua koherentea da indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin, eta, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioari egokitzen zaio.

Ildo horretan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak agintzen duen bezala, toki-korporazioen dirulaguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua betearazteko oinarrien esparruan onartu beharko dira, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitateetarako ordenantza berariazko baten bidez.

Gardentasunaren hatsarreari dagokionez, arau honek argi eta garbi zehazten ditu bere helburuak, azalpenen atalean islaturik eta baita administrazio-espedientean dauden txostenetan ere. Azkenik, eraginkortasun-hatsarreari dagokionez, Ordenantza honetan ahaleginak egin dira arauak herritarrentzako administrazio-zamarik txikienak sor ditzan.

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honen xedea da dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea, mendekotasunei aurre-hartzeko, jokabide osasungarriak sustatzeko eta eskola-komunitatea sentiberatu eta kontzientziatzeko jarduerak diruz laguntzeko.

Jarduera horiek eskola-eremuko aurre-hartzearen arloko sentiberatze-, prestakuntza- eta informazio-ekintza berariazkoak egitean zehazten dira, eta talde hartzailea eskola-komunitatea da oro har: gurasoak, ikasleak eta irakasleak.

*2. artikulua. Araudi erregulatzailea.*

Ordenantza honen xede diren laguntzak emateko, araudi hau bete beharko da:

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

— 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

— Andoaingo Udalaren aurrekontua betearazteko araua.

— Ordenantza eta deialdi honetan jasotako hitzbaketak.

*3. artikulua. Ezarri beharreko araubidea.*

Laguntzak deialdi ireki bidez izapidetuko dira, norgehiagokarik gabeko araubidean.

El artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece que son competencias propias de los municipios las siguientes: 10) Promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública y 13) Ordenación, planificación y gestión de los Servicios Sociales. Por su parte, la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, en su artículo 25.2 e), recoge que es competencia de los municipios, la evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social.

La Ordenanza se ajusta, por otro lado, a los principios de buena regulacón establecidos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En este sentido, atendiendo a los principios de necesidad y eficacia, la creación de esta norma se basa en la necesidad de prevenir las adicciones, promocionar conductas saludables y sensibilizar y concienciar a la comunidad escolar para la promoción y protección de la salud pública.

Se respeta también el principio de proporcionalidad, dado que contiene la regulación imprescindible para la consecución del objetivo mencionado en la Ordenanza. Asimismo, la norma resulta coherente con el vigente ordenamiento jurídico, ajustándose, por ello, al principio de seguridad jurídica.

En este sentido, tal y como ordena la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

En cuanto al principio de transparencia, esta norma define claramente sus objetivos, reflejados tanto en su parte expositiva como en los informes que obran en el expediente adminsitrativo. Por último, en relación con el principio de eficiencia, en esta Ordenanza se ha procurado que la norma genere las menores cargas administrativas para los ciudadanos.

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de esta Ordenanza es establecer las bases reguladoras de las ayudas económicas dirigidas a subvencionar las actividades de prevención de las adicciones, de promoción de conductas saludables y la sensibilización y concienciación de la comunidad escolar.

Estas actividades se concretan en la realización de acciones específicas de sensibilización, formación e información en el área de la prevención en el ámbito escolar, siendo el grupo destinatario la comunidad escolar en general: padres/madres, alumnado y profesorado.

*Artículo 2. Normativa reguladora.*

La concesión de las ayudas objeto de la presente Ordenanza está sujeta a la siguiente normativa:

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

— Norma de ejecución presupuestaria del Ayuntamiento de Andoain.

— Cláusulas contenidas en la presente Ordenanza y convocatoria.

*Artículo 3. Régimen aplicable.*

Las ayudas se tramitarán mediante convocatoria abierta en régimen de concurrencia no competitiva.

EK\CV GAO-I-2022-03908

*4. artikulua. Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa.*

Laguntzak 1 0400.226.231.70.06 (291) aurrekontu-kontuan zuzkituta emango dira, deialdi bakoitzean ezarritako zenbatekoaren arabera.

Diruz lagunduko den zenbatekoa ez da 1.000 eurotik gorakoa izango erakunde eskatzaile bakoitzeko. Dirulaguntzak ezin izango du, inola ere, egindako gastu osoa gainditu.

*5. artikulua. Erakunde onuradunak. Betebeharrak.*

Andoaingo ikastetxe publikoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Eskatzen zaizkien eskabideak eta agiriak garaiz eta behar bezala aurkeztea.

b) Gastuak behar bezala zuritzea.

c) Hizkuntza-irizpidea hartuko da kontuan. Ondorioz, Andoaingo Udalaren dirulaguntza jasotzen duten erakundeek idatzi eta jakinarazi beharko dute diruz lagundutako jardueren inguruan argitaratzen den idazki, iragarki, ohar edo antzeko mezu oro, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, propaganda barne, idatzizkoa zein ahozkoa, euskaraz ere egingo dena, edo euskaraz eta gaztelaniaz.

*6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.*

Laguntza hauek eskuratu nahi dituzten erakundeek eskabide bat aurkeztu beharko dute, Andoaingo Udalaren Herritarrentzako Arretarako bulegoetan (Ataria) eta www.andoain.eus udal-webgunean jendearen eskura jarriko den eredu ofizialaren arabera beteta, deialdian ezarritako moduan.

Eskabidearekin batera, dirulaguntza zer jardueratarako eskatzen den azaltzen duen memoria aurkeztu beharko da, berariaz adierazita zer ikasturteri edo eskola-gizataldeari zuzentzen zaion, bai eta garatu beharreko jardueraren aurrekontua ere.

Eskabideak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdian ezarritako epean aurkeztu beharko dira.

Eskaerak Ordenantzan adierazitako baldintzak betetzen ez baditu, erakunde interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo dagokion agiria aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, behin 21. artikuluan aurreikusitako baldintzei jarraiki ebazpena eman ondoren, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaren arabera.

Ordenantzan aurreikusitako baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatu ondoren, organo eskudunak laguntza onartu edo ukatuko du eta, hura behar bezala zuritu ondoren, laguntzaren zenbatekoa ordainduko da.

*7. artikulua. Beste agiri batzuk.*

39/2015 Legearen 28. artikuluaren eta (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1. artikuluaren arabera, interesdunak Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan zuzenean kontsultatuko du laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen direla zehazteko beharrezkoa den informazioa, eta, bereziki, honako datu hauek: erakunde eskatzaileak egunean dituela Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zerga-betebeharrak.

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluaren arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka

*Artículo 4. Crédito presupuestario y cuantía de las subvenciones.*

Las ayudas serán concedidas con cargo a la partida presupuestaria 1 0400.226.231.70.06 (291), según la cuantía establecida en cada convocatoria.

La cuantía a subvencionar no excederá de 1.000 € por entidad solicitante. En ningún caso la subvención podrá superar el total del gasto realizado.

*Artículo 5. Entidades beneficiarias. Obligaciones.*

Podrán solicitar subvenciones los centros de enseñanza del municipio de Andoain.

Las entidades beneficiarias deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Presentar en tiempo y forma la solicitud y la documentación que se les solicite.

b) Justificar adecuadamente los gastos.

c) Se tendrá en cuenta el criterio linguístico. En consecuencia, las entidades que perciban la subvención del Ayuntamiento de Andoain, deberán redactar y dar a conocer todo escrito, anuncio, aviso o mensaje análogo, que se haga público en relación a las actividades subvencionadas, en euskera, o en euskera y castellano, incluida la propaganda, tanto la escrita como la oral, que también se realizará en euskera, o en euskera y castellano.

*Artículo 6. Plazo de presentación de solicitudes.*

Las entidades que deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial que se pondrá a disposición del público en las oficinas de Atención a la ciudadanía del Ayuntamiento de Andoain –Ataria–, y en la página web municipal, www.andoain.eus, en la forma establecida en la convocatoria.

La solicitud deberá ir acompañada de una memoria explicativa de las actividades para las que se solicita la subvención, indicando explicitamente el curso o colectivo escolar al que va dirigido, y del presupuesto de la actividad a desarrollar.

Las solicitudes deberán presentarse dentro del plazo establecido en la convocatoria anual en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si la solicitud no reúne los requisitos señalados en la Ordenanza, se concederá a la entidad interesada un plazo de 10 días para que subsane la falta o aporte la documentación correspondiente, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21, según el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo común de las Administraciones Públicas y notificada a la entidad interesada.

Una vez acreditado el cumplimiento o inclumplimiento de los requisitos previstos en la Ordenanza, se procederá a la aprobación o denegación de la ayuda por el órgano competente y, tras la justificación de la misma, al abono del importe de la ayuda.

*Artículo 7. Otra documentación.*

De acuerdo con el artículo 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Andoain consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad Nisae, en la Hacienda Foral y en la Tesorería de la Seguridad Social, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a las ayudas, y en particular los siguientes datos: que la entidad solicitante está al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social.

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos,

EK\CV GAO-I-2022-03908

egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion ziurtagiriak aurkeztera behartu ahal izango du.

*8. artikulua. Dirulaguntza zuritzea.*

Laguntza eman ondoren, gastua zuritu beharko da, honako agiri hauek aurkeztuta:

— Egindako jarduerei dagozkien jatorrizko fakturak.

Zuritze-kontua ikasturtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da.

Gastuak garbitzeko frogagiriak aztertu ondoren, betiere frogagiria behar bezala egiaztatzen bada, esleitutako zenbatekoa ordainduko da.

*9. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Laguntza hau ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

*10. artikulua. Organo eskudunak.*

Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak emateko prozeduraren antolamendua eta egikaritza Andoaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuen Lansailak burutuko du.

Alkatetza izango da Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak emateko prozedura ebazteko organo eskuduna.

*11. artikulua. Finantzaketaren muga, bateragarritasuna eta beste dirulaguntza batzuekin batera gertatzea.*

Udalak emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Aurreko kasuan, erakunde onuradunak organo emaileari jakinarazi beharko dio diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek eskuratu dituela, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, jasotako funtsen erabilera garbitu baino lehen.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da izan erakunde onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

*12. artikulua. Dirulaguntzak itzultzea.*

Bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, dirulaguntzen emakida arautzen duen udal-ordenantzaren 25. eta 26. artikuluei jarraiki.

debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes certificados.

*Artículo 8. Justificación de la subvención.*

Tras la concesión de la ayuda, se deberá justificar el gasto entregando la siguiente documentación:

— Facturas originales correspondientes a las actividades realizadas.

La justificación deberá presentarse antes de la finalización del curso escolar.

Una vez revisada la documentación justificativa y siempre y cuando la justificación quede debidamente acreditada, se procederá al pago de la cantidad adjudicada.

*Artículo 9. Plazo de resolución y notificación.*

El plazo máximo de resolución y notificación de esta ayuda será de tres meses a contar desde el día siguiente al fin del plazo de solicitudes.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa.

*Artículo 10. Órganos competentes.*

La ordenación e instrucción del procedimiento de concesión de las subvenciones reguladas en la presente Ordenanza, se realizará por el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Andoain.

La Alcaldía será el órgano competente para la resolución del procedimiento de concesión de las subvenciones reguladas en la presente Ordenanza.

*Artículo 11. Límite de la financiación, compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones.*

Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento serán compatibles con otras subveniones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquier Administración o ente público o privado.

En el supuesto anterior, la entidad beneficiaria deberá comunicar al órgano concedente la obtención de las citadas subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, tan pronto como se conozcan y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

El importe de las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrecia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada a desarrollar por la entidad beneficiaria.

*Artículo 12. Reintegro de las subvenciones.*

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas indebidamente, de acuerdo a los artículos 25 y 26 de la Ordenanza municipal reguladora de la Concesión de Subvenciones.

EK\CV GAO-I-2022-03908